



PRENTSA-OHARRA

La Bandak hasiera emango dio antzerki profesionaleko *Teatreves* zikloaren edizio berriari, ostegunean, Iturramako Civivoxean, *Km 0* antzezlanaren taularatuta

Zikloaren barruan hiru ikuskizun antzeztuko dira, horietako lehena ostegunean, 19:30ean, eta sarrerek 6 euro balio dute

Zirkua, familiendako euskarazko antzerkia eta antzerki garaikidea. Horra arte eszenikoen hiru adibide eta hiru ikuskizun-mota, *Teatreves*. *Antzerki arratsaldeak* antzerki profesionala erakusteko programaren edizio berrian lekua izango dutenak, Iturramako Civivoxean, otsailaren 15etik 22ra. Lehenengo ikuskizuna, La Bandaren *Km 0*, ostegunean taularatuko da, 19:30ean, eta sarrerak 6 euroan daude salgai.

Zirku-artearen binakako akrobaziaren teknika, antzerki-teknika den gorputz-adierazpena, interpretazioa eta objektuen maneia. Horiek dira ikuskizunaren oinarri. Bi pertsonaiek tregeltoki batean egingo dute topo, eta bertan, bestearen maleta, amets eta bizipenenekin nahastuko dituzte nork bereak, hartara abentura-bidaia batean sartuta, hainbat ibilgailuren gainean. Jomuga: mundu berri bat aurkitzea. Txori García eta La Bandak zuzendu dute muntaketa, eta Izaskun Lasarte eta Nano Napal dira interpreteak.

Zikloa osatzeko beste bi ikuskizun egongo dira otsailaren 17an, larunbatarekin, eta 22an, ostegunarekin. Larunbateko ikuskizunean, Producciones Maestras konpainiak *Martinaren parke fantastikoa* taularatuko du, euskaraz. Familian ikusteko antzerki-ikuskizuna da, eta musika eta kantak baliatuta Martina izeneko 7 urteko neskatik baten istorioa kontatzen du: arratsaldero auzoko parkera joaten da, parke arrunta izanagatik harentzat fantastikoa den parke batera. Bi emanaldi egingo dira, 12:00etan eta 18:00etan, eta sarreraren prezioa 3 euro da.

Otsailaren 22an, 19:30ean, zikloari buru emango zaio La Nave Teatro antzerki-taldearen *Todas eran mis tías* ikuskizunarekin. Musika-kutxa baten soinua entzuten delarik eta agertokiaren jabe den argiaren artean agertuko zaigu protagonista, eta txikitan dantzari izan nahi zuela kontatuko du. Eta horrela, musika eta dantzarekin batera, haren bizitzan diren emakumeei buruzko istorioak kontatuko ditu, haren izeben ingurukoak, alegia. Sarrerak 6 euroan salduko dira.





TEATREVES. ANTZERKI-ARRATSALDEAK

- **Otsailak 15, osteguna. 19:30. Iturramako Civivoxa**
 - ***Km 0***
 - La Banda
 - Zirkua. Zuzendariak: Iván García Txori eta La Banda. Egileak eta interpreteak: Izaskun Lasarte eta Nano Napal. Eszenografia: La Banda. Diseinu grafikoa eta argazkiak: Iker Lanz. Argien diseinua: David Lainez Txiki. Ekoizlea: La Banda
 - Sarrera: 6 euro.
- **Otsailak 17, larunbata. 12:00 eta 18:00. Iturramako Civivoxa**
 - ***Martinaren parke fantastikoa***
 - Producciones Maestras
 - Antzerkia familiarrean, euskaraz. Dramaturgoa eta zuzendaria: Ana Maestrojuán. Interpreteak: Iratxe García Uriz, Oier Zuñiga eta Txori García Uriz. Argien diseinua: Koldo Tainta. Proiektzioak: David Bernués. Jatorrizko abestiak eta soinu-espazioa: Gorka Pastor. Ekoizlea: Producciones Maestras.
 - Sarrera: 3 euro.
- **Otsailak 22, osteguna. 19:30. Iturramako Civivoxa**
 - ***Todas eran mis tías***
 - La Nave Teatro
 - Antzerki garaikidea. Dramaturgoa eta zuzendaria: Miguel Munarriz. Aktorea: Marta Juániz. Dantzaria: Uxue Olazaran. Klarineta: Marien Mejail. Koreografoa: Arantxa Villanueva. Argien diseinua: Koldo Tainta. Eszenografiaren diseinua: Joaquín Juániz. Diseinu artistikoa eta eszenografia-diseinua: Alicia Otaegui. Eszenografiako irudiak: José Luis Larrión. Modeloa: Claudia Lafuente. Jantziak: Miren Juániz eta M^a Eugenia Molina. Ekoizlea: La Nave Teatro
 - Sarrera: 6 euro.

Iruñean, 2018ko otsailaren 13an